

"INGURUMEN
JARDUKETARAKO
SOZIE TATE PUBLIKOA,
IHOBE S.A." REN
ADMINISTRAZIO
KONTSEILUAREN
ARAUDIA



Herri-baltzua
Sociedad Pública del

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

INGURUMEN ETA LURRALDE
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE
Y POLÍTICA TERRITORIAL

“INGURUMEN JARDUKETARAKO SOZIETATE PUBLIKOA, IHOBE S.A.”REN ADMINISTRAZIO KONTSEILUAREN ARAUDIA

I. KAPITULUA **Xedapen orokorrak**

1. Artikulua. Helburua

Araudiaren helburua da ezartzea Sozietatearen Administrazio Kontseiluaren jardute-printzipioak, beraren antolaketa eta funtzionamenduaren oinarritzko arauak eta Kontseilua osatzen duten pertsonen jokabide arauak, hori guztia ahalik eta eraginkortasun eta gardentasun handiena lortzeko bere kudeaketan.

2. Artikulua. Aplikazio-eremua

Araudia Sozietatearen Administrazio Kontseilua osatzen duten pertsona guztiei aplikatuko zaie, eta pertsona horiek nahitaez bete beharko dute. Halaber, beren izaera espezifikoarekin bateragarriak diren neurrian, Sozietatean goi zuzendaritzako karguak dituzten pertsonen ere aplikatuko zaie, Kontseilari izaerarik ez izan arren, fideltasun, leialtasun eta sekretu profesionalarekin zerikusia duten betebeharrei dagozkien alderdi guztietan.

Orobat, Araudia aplikatuko zaie izatez eta edozein arrazoi dela medio, nabaritasun handiagoz edo txikiagoz, administrazio-ardurak beren gain hartzen dituzten guztiei.

3. Artikulua. Indarrean sartzea eta aldatzea

Araudia indarrean sartuko da Administrazio Kontseiluak onartzen duen egunean.

Administrazio Kontseiluari dagokio aldaketa egitea Araudian, Presidentziaren eskariz edo Kontseilua osatzen duten hiru pertsonaren eskariz, beren kargua erabiliz, hori beharrezko edo egoki bihurtzen duten zirkunstantziak daudela uste dutenean.

Araudia aldatzeko eskari guztiak arrazoitu egin beharko dira; horretarako, aldaketa eskatzen dutenek proposatutako aldaketaren arrazoiak eta irismena justifikatzen duen txosten bat aurkeztu beharko dute proposamenaren testuarekin batera.

Araudia aldatzeko proposamenaz eztabaidatu eta erabaki behar duen Kontseiluaren bileraren deialdia gutxienez hamabost egun natural aurretik egingo da. Deialdiari proposamenaren testua eta justifikazio-txostena atxiki beharko zaizkio.

4. Artikulua. Interpretazioa

Araudia aplikatzekoak diren arau legal eta estatutarioen arabera interpretatu behar da.

Gobernu korporatiboaren alorreko oinarritzko betebeharrak, hots, informazio, gardentasun eta segurtasun betebeharrak, ezinbesteko printzipioak dira arau hauen interpretaziorako.

Administrazio Kontseiluari dagokio Araudia aplikatzerakoan sor litezkeen interpretazio-zalantzak argitzea.

5. Artikulua. Hedapena

Kontseilariak eta Sozietatearen goi zuzendaritzako pertsonalak -hori aplikatzen zaien alderdietan- Araudia ezagutu, bete eta betearazi behar dute. Horri begira, Kontseiluaren Idazkariak Araudiaren alde bana emango die beren izendapena onartzen duten unean.

II. KAPITULUA KONTSEILUAREN OSAKETA

6. Artikulua. Osaketa

Administrazio Kontseiluak gutxienez hiru partaide izango ditu eta gehienez zazpi. Partaide horiek akziodunen Batzar Orokorrek izendatuko ditu, indarrean dauden agindu legal eta estatutarioekin bat etorritik.

Zirkunstantziak hala gomendatzen dutenean, Batzar Orokorrek Kontseilari independenteak izendatu ahal izango ditu.

Kontseiluko kide independente berriak proposatzerakoan, eta interes sozialak lehentasuna izan dezan beti administrazio organoan, Kontseilua saiaturiko da proposatzen diren hautagaiak pertsona zintzo eta egokiak eta fidagarritasun, gaitasun eta esperientzia aitortukoak izatea, eta egiaztatuko du ez daudela sartuta Legean edo Sozietatearen Estatutuetan ezartzen diren bateraezintasun edo debekuetan.

Batzar Nagusiak bermatuko du, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruz indarrean dagoen legediarekin bat etorritik, emakumeek eta gizonen presentzia orekatua izango dutela Kontseiluaren osaketan. Alde horretatik, Kontseilu Administrazioaren gutxienez % 40 emakumeak izan beharko dira.

III. KAPITULUA KONTSEILUAREN EGITURA

7. Artikulua. Kontseiluaren Presidentzia

Administrazio Kontseiluak bere Presidentea aukeratuko du, bere kideen gehiengo soilaren bidez.

Presidenteari dagokio Administrazio Kontseilua deitzeko eskumen arrunta. Deialdia egokitzen jotzen duenean egongo du, gutxienez hiru hiletik behin. Halaber, berari dagokio

bileren gai-zerrenda egitea eta eztabaidak gidatzea.

Dena dela, Presidenteak Kontseilua biltzeko deialdia egin beharko du beraren partaideen herenek eskatzen dutenean.

Presidenteak ardura hauek hartuko ditu bere gain:

- Saiatuko da Kontseiluko kide guztiak bileretara etortzea; horretarako, Araudi honetan ezarritako forman eta epeetan bidaliko ditu deialdiak.
- Kontseilariren bat ez bada etortzen Kontseiluaren bileretara, horren arrazoiak egiaztatuko ditu, hutsegitea behin eta berriz gertatuz gero.
- Kontseiluaren funtzionamenduaren ebaluazioa gainbegiratuko du eta, hala dagokionean, hortik ondorioztatzen diren hobekuntza proposamenen aplikazioa edo detektatutako gabezien zuzenketa. Ebaluazioa Kontseiluko kideengana zuzendutako inkesta baten bidez gauzatuko da.

8. Artikulua. Kontseiluaren Presidenteordetza

Administrazio Kontseiluak Presidenteorde bat izendatuko du Kontseilua osatzen duten pertsonen artean, Presidenteak ordezkatu dezan bera ezin etor daitekeenean edo kanpoan dagoenean. Oro har, Kontseiluak edo Presidenteak berak egokitzen jotzen dituen eginkizun edo eskumenak bereganatuko ditu.

9. Artikulua. Kontseiluaren Idazkaritza

Administrazio Kontseiluak Idazkari bat izendatuko du. Idazkariak ez du Kontseilaria izan beharko.

Idazkariak Presidenteari lagunduko dio bere zereginetan eta beharrezkoak diren aholkularitza eta informazioa emango dizkie Kontseilariei; sozietatearen dokumentazioa gordeko du; bileren garapena islatuko du, behar den bezala, akten liburutetan; eta sozietatearen akordioen ziurtapena egingo du.

Idazkariak bermatuko du, une orotan, funtzionamendu arauen aplikazio zuzena, eta baita Administrazio Kontseiluaren barne funtzionamendua horri begira arautzen duten prozeduren garapen egokia ere.

Idazkariak aktak egiteko eta sinatzeko prozesu osoaren garapen egokia hartuko du bere gain; halaber, aktak bidaliko dizkie, geroago, Kontseilua osatzen duten pertsona guztiei.

Idazkariak satisfazioa neurtzeko inkesta egingo du Kontseiluko kideen artean. Inkesta hori idatzizko barne prozedura bat izango da, eta beraren bidez ebaluatuko dira Kontseilua bera, beraren kideak, erabakiak hartzeko prozesuen kalitatea eta eraginkortasuna, bileren eraginkortasuna, eta abar. Hala dagokionean, beharrezkotzat jotzen diren neurri zuzentzaileak hartuko dira, eskuratutako emaitzen arabera.

Prozedura bat ezarriko da kontrolatzeko ea Idazkariak aplikatzen ote dituen Sozietatearen dokumentazio eta liburu ofizialen zaintzari buruz indarrean dauden arauak; horren barne

auditoriaren emaitza Gobernu Arduratsuen Txostenean sartuko da.

10. Artikulua Eskumenak delegatzea

Administrazio Kontseiluak Sozietatearen Estatutuek egozten dizkioten eskumen guztiak utzi ahal izango ditu Sozietatearen Zuzendariaren eskuetan edo Kontseilari baten eskuetan, Legearen arabera ezin delegatu daitezkeenak izan ezik.

Horretarako, Kontseiluak Batzorde delegatuak eratu ahal izango ditu, dela iraukorrak dela aldi baterako, gai konkrituak jorrazteko. Eskumen horiek erabiliz gero, eraketari buruzko erabakiak Batzorde bakoitzaren agintaldia, osaketa eta lan egiteko prozedurak islatu beharko ditu.

IV. KAPITULUA KONTSEILUAREN EGINKIZUNAK

11. Artikulua. Kontseiluaren Eskumenak

Batzar Orokorraren eskuetan soilik uzten diren gaietan izan ezik, Administrazio Kontseilua Sozietatearen erabakitze, kontrol eta ordezkatze organo gorena da.

Kontseiluaren politika da Sozietatearen kudeaketa arrunta organo exekutiboan eta zuzendaritza taldearen eskuetan uztea, eta bere jardura gainbegiratze eginkizun orokorrean kontzentratzea.

Ezin delegatu daitezke legeak edo estatutuek Kontseiluarentzat erreserbatzen dituzten eskumenak, ezta gainbegiratze eginkizun orokorra modu arduratsuan betetzeko beharrezkoak direnak ere.

Sozietatearen Estatutuetan egozten zaizkion eskumenez gain, Administrazio Kontseiluak beste ardura hauek ere izango ditu:

- Sozietatearen Plan Estrategikoa onartzea eta beraren garapen eta aplikazio errealaren neurria aldizka ikuskatzea.
- Urteko Kudeaketa Plana onartzea, aurrekontuen proposamena barne sartuta, eta beraren betarazpenaren inguruko ebaluazio partzialak egitea.

12. Artikulua. Enpresaren egoerari eta beraren jardueraren testuinguruari buruzko informazioa

Kontseiluaren bileren gai-zerrendan, Sozietatearen egoera ekonomiko eta finantzarioari buruzko puntu bat sartuko da, eta gutxienez urtean behin informazio zehatza emango da koiuntura ekonomiko orokorrari eta euskal sektore ekonomiko nagusiei buruz

13. Artikulua. Inbertsioari buruz hartzen diren erabakien inpaktu sozial eta ekonomikoa

Inbertsioei buruzko oroitidazkiak Kontseiluari aurkezten zaizkionean, haien inpaktu ekonomiko eta sozialari buruzko azterketa bat erantsiko da, eta bileraren aktan islatuta geratuko dira Kontseiluak alderdi horietako bakoitzaz egiten duen balorapena.

V. KAPITULUA KONTSEILUAREN FUNTZIONAMENDUA

14. Artikulua. Kontseiluaren Bilerak

Administrazio Kontseilua gutxienez lau aldiz bilduko da urtean nahitaez, hots, hiru hiletik behin.

Halaber, Kontseiluak ohiz kanpoko bilerak egingo ditu, Presidenteak egokitzen jotzen duenean Sozietatearen funtzionamendu onerako.

Deialdia gutxienez hamabost egun natural aurretik bidaliko da Kontseilari bakoitzak horretarako adierazi duen helbidera, eta barnean hartuko ditu, betiere, bileraren gai-ordena eta horren ondorioz eman beharreko informazioa.

Administrazio Kontseiluaren bilerak sozietatearen egoitzan egingo dira, normalean, baina Presidenteak ezarri eta deialdian adierazten den beste edozein lekutan ere egin daitezke.

Kontseiluaren bilera baliozkoa izango da, aurretiko deialdirik egin behar izan gabe, beraren partaide guztiak bertan egonda saioa egitea aho batez onartzen dutenean.

Kontseiluak erabakiak idatziz eta bilerarik gabe hartzeari dagokionez, hori bakarrik onartuko da ezin Kontseilari ez dagoenean horren aurka.

Bilera bakoitzaren deialdian, bilerarentzat gutxi gorabehera aurreikusten den iraupena adieraziko da; iraupen hori aski izan beharko da gai-zerrendan sartuta dauden gaiak behar besteko sakontasunez jorrazteko, eta denbora-tarte bat erantsi beharko da eskari eta galderentzat.

Urtean behin, gobernu korporatiboari buruzko txosten bat egingo da Batzar Orokorrarentzat; bertan ebaluatuko da, eremu horretatik, Sozietatearen organoen funtzionamendua.

15. Artikulua. Bileren garapena

Kontsideratuko da Administrazio Kontseilua deituta eta edozein gai jorrazteko osatuta dagoela beraren kide guztiak bertan daudenean eta Kontseilua egitea aho batez erabakitzen dutenean. Kontseilua legez osatuta egongo da beraren partaideen erdiak gehi beste bat bertaratzen direnean, eurak edo beren ordezkariak, betiere bileran hiru Kontseilari badaude fisikoki.

Kontseilariak Kontseiluaren bileretara joan beharko dute; ezin joan daitezkeenean, beren ordezkapena beste norbaiten esku uzten saiatuko dira. Ordezkapena idatziz eman beharko da, eta eman beharreko jarraibideak ere jasoko ditu, hala dagokionean. Zalantzarik egonez gero, Presidenteak erabakiko du ea bilerara bertaratzen ez diren Kontseilariak emandako ordezkapenak baliozkoak ote diren.

Presidenteak eztabaida antolatuko du, eta ahaleginak egingo ditu Kontseilari guztiek parte hartu dezaten organoaren eztabaidetan; halaber, gaien inguruko bozketa egingo du haien inguruko eztabaida askitzat jotzen duenean.

Legeak, Sozietatearen Estatutuek edo Kontseiluaren Araudiak gehiengo indartua exijitzen duten kasuetan izan ezik, akordioak bilerara bertaratutako edo bertan ordezkaturako Kontseilarien gehiengo soilz hartuko dira. Presidenteak edo beraren ordezkariak kalitate-botoa izango du berdinketak desegiteko.

Bertaratutako edo behar den bezala ordezkaturako Kontseilari bakoitzak boto bat izango du.

16. Artikulua. Kontseiluaren Aktak

Administrazio Kontseiluaren bileraren akta beraren Idazkariak egingo du. Idazkaria ez badago, Kontseilari gazteenak egingo du akta, edo bileraren unean Kontseiluak berak aukeratzen duen pertsonak.

Akta Kontseiluak berak onartuko du, bileraren amaieran edo hurrengo bileran.

VI. KAPITULUA KONTSEILARIEN IZENDAPENA ETA KARGU UZTEA

17. Artikulua. Kontseilarien Izendapena

Batzar Nagusiak izendatu edo berriz aukeratuko ditu Kontseilariak, Sozietate Anonimoen Legeak, Euskadiko Ondarearen Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 6ko 2/2007 Legegintza Dekretuak eta Sozietatearen Estatutuek ezartzen dutenarekin bat etorritik.

Beren izendapena onartzen duten unean, konpromiso-agiri bat sinatu behar dute (I. eranskina), beraren bidez hitzemandako Legean ezarritako betebeharrak beteko dituztela, eta baita funtsezko gardentasun eta independentzia printzipioak bermatzen dituzten Sozietatearen gobernu onerako arauak ere.

Kontseilariak izendatu ondoren, harrera Plan bat jasoko dute enpresaren aldetik, Sozietatearen alderdi nagusiei buruzko orientabideekin. Gainera, prestakuntza etengabeko Plan bat emango zaie, Sozietatearen egoerari buruzko ezagutza eguneratua izan dezaten.

18. Artikulua. Karguaren iraupena

Kontseilariak Sozietatearen Estatutuetan ezarritako epeak dirauen bitartean izango dira karguan.

19. Artikulua. Kontseilarien kargu-uztea

Kontseilariak kargua utziko dute izendapenaren aldia bukatzen denean edo Batzar Nagusiak hala

erabakitzen duenean, legeak eta estatutuek ematen dizkioten eskumenak erabiliz.

Kontseilariak beren kargua jarri beharko dute Administrazio Kontseiluaren eskuetan, berak egokitzen badu, eta beren dimisioa formalizatu beharko dute kasu hauetan:

- a. Legean aurreikusitako bateraezintasun edo debeku egoeran daudenean.
- b. Kontseilari gisa dituzten betebeharrak hautsi dituztenean.
- c. Kontseiluan jarraitzeak Sozietatearen interesak arriskuan jar ditzakeenean.

VII. KAPITULUA **KONTSEILARIAREN BETEBEHARRAK (KODE DEONTOLOGIKOA)**

20. Artikulua. Jokabide irizpideak

Administrazio Kontseiluaren jokabidea une orotan gidatu behar duten irizpideak hauexek dira:

- a. Sozietatearen helburua betetzea
- b. Sozietatearen bideragarritasuna defendatzea
- c. Sozietatearen balioa handitzea

Hori guztia, eskura dauden baliabideen kudeaketa optimizatzearen bidez gauzatu beharko da, langile, hornitzaile eta finantzatzaileekin hitzartutako kontratuak onustez betez eta, oro har, Sozietatea modu arduratsuan gidatzeari berez datzekion betebeharrak etikoak betez.

Antolaketa korporatiboaren eremuan, Kontseiluak beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu segurtatzeko Sozietatearen zuzendaritza benetan dagoela Kontseiluaren ikuskaritzapean.

21. Artikulua. Kontseilariaren betebeharrak orokorrak

Kontseilariaren eginkizuna da Sozietatearen kudeaketa orientatzea eta kontrolatzea, balioaren sorrera maximatzeko xedez.

Bere eginkizunak betetzean, Kontseilariak beharrezkoa den arduraz jokatu du interes sozialak lortzeko, eta Sozietateari zor dion leialtasuna behar den bezala betez; horri begira, betebeharrak bete beharko ditu bereziki:

- a. Sozietatearen administrazioak planteatzen dituen gaien jarraipen erregularra egiteko beharrezkoak diren denbora eta ahaleginak dedikatzea, horretarako behar den informazioa eskuratuz.
- b. Kontseiluaren bileretara joatea konpromiso pertsonaltzat hartzea eta beraren eztabaidetan modu aktiboan parte hartzea, bere irizpideak eragin erreala izan dezan hartzen diren erabakietan.
- c. Administrazio Kontseiluak agintzen dion eta bere dedikazio-konpromisoaren barnean

modu arrazoizkoan sar daitekeen edozein zeregin espezifiko gauzatzea.

d. Sozietatearen kudeaketan antzeman dezakeen edozein irregulartasun ikertzea, eta erne gotea edozein arrisku-egoeraren aurrean.

e. Oro har, legeek eta Araudiek ezartzen dituzten betebeharrak betetzea, interes sozialarekin fidela izanik; ildo beretik, Legaren, Sozietatearen Estatutuen edo interes sozialaren kontrako erabakiei aurre egin beharko die, eta bere aurkako jarrera aktan jaso dadila eskatu beharko du, interes horren babeserako egokiagoa dela uste duenean.

22. Artikulua. Konfidentzialtasun betebeharra

Beren eginkizunak betetzeko denbora bukatzen denean ere, Kontseilariak sekretua gorde beharko dute izaera konfidentzialeko informazioez, eta kargua betetzearen eraginez ezagutu dituzten datu, txosten edo aurrekarien erreserba gorde beharko dute, datu, txosten edo aurrekari horiek hirugarren pertsonari jakinarazi gabe edo hedatu gabe, hori kaltegarria izan daitekeenean interes sozialarentzat.

23. Artikulua. Gardentasun eta informazio betebeharra

Kontseilarien betebeharrak bat da Sozietatea garaiz informatzea beren erabakietan eragina izan dezaketen interes partikularrei buruz.

Sozietateak eskatuta, Kontseilariak Sozietatea informatu beharko du Sozietatearen helburua lortzera zuzendutako jarduera mota berdina, antzekoa edo osagarria gauzatzen duten Sozietatearen kapitalean duen partaidetzaz, eta baita bertan betetzen dituen kargu edo eginkizunak ere; jakinarazi beharko dio, halaber, ea Sozietatearen helburua lortzera zuzendutako jarduera mota berdina, antzekoa edo osagarririk gauzatzen duen, bere kabuz edo hirugarrenen kontura, eta, oro har, Sozietatea administratzeko zereginarentzat esanguratsua izan daitekeen beste edozein gertaera edo egoeraren berri eman behar dio.

Orobat, Kontseilariak bere egoera profesionalaren aldaketa esanguratsua jakinarazi beharko dizkio Sozietateari, baldin eta eragina baitute Kontseilariak izendatzerako eraman zuen izaera edo kondizioan; jakinarazi beharko dizkio, halaber, interesen arteko gatazkak sor litzaketen aldaketak.

Gainera, Kontseilariak inplikaturik badago erreklamazio judizial edo administratiboaren batean edo bestelako erreklamazioaren batean, horren berri eman beharko dio Sozietateari, baldin eta, beraren garrantziaren eraginez, eragin larria izan badezake Sozietatearen ospean.

24. Artikulua. Interesen arteko gatazka

Kontseilariak bete behar duen leialtasun betebeharra betetz, interesen arteko gatazka egoerak saihestu beharko ditu, alegia, berarekin lotutako pertsonen eta Sozietatearen arteko interes-gatazkak, eta saihestezinak badira horren berri eman beharko dio Administrazio Kontseiluari. Hain zuzen ere:

- Kontseilariak ez du esku hartuko berarekin zuzeneko edo zeharkako zerikusia duten gaiei buruzko eztabaidetan.

- Kontseilariak ezin izango du egin zerbitzu profesional edo komertzialen prestaziorako transakziorik, ez zuzenean ez zeharka, salbu eta interesen arteko gatazka egoera aurretik jakinarazten badu eta Kontseiluak transakzioa onartzen badu.
- Kontseilariak ezin aprobetxa dezake bere onerako edo berarekin lotutako pertsonen onerako Sozietatearen negozio aukerarik, hau da, Kontseilari kargua betetzeari lotuta, edo Sozietatearen informazio-bideak erabiltzearen bidez, sortu edo azaleratu den inbertsio edo operazio komertzialen bat egiteko aukerarik.

Kontseilariak Sozietateari zor dioten leialtasunak Presidentea informatzera bultzatu behar ditu, edozein abusu edo arau-hausteren berri izanez gero, batez ere informazio esanguratsu edo pribilegiatua erabiltzearekin zerikusia badu.

25. Artikulua. Sozietatearen izenaren erabilera

Kontseilariak ezin erabil dezake Sozietatearen izena, ezta beraren administratzaile izaeraz ere baliatu, operazioak bere kontura edo berarekin lotutako pertsonen kontura egiteko.

26. Artikulua. Informazio ez-publikoa

Sozietatearen informazio ez-publikoa helburu pribatuek erabiltzeari dagokionez, erabilera hori bakarrik onartzen da Sozietateari kalterik egiten ez badio.

27. artikulua. Lotutako pertsonak

Kapitulu honen ondorioei begira, honako hauek joko dira Kontseilariari lotutako pertsonatzat:

- a) Pertsona fisikoa den Kontseilariari dagokionez:
 - (i) Kontseilariaren ezkontidea edo berarekin gisa bereko afektibitate harremana dutenak.
 - (ii) Kontseilariaren edo beraren ezkontidearen aurreko ahaideak, ondorengo ahaideak eta neba-arrebak.
 - (iii) Kontseilariaren aurreko ahaideen, ondorengo ahaideen eta neba-arreben ezkontideak.
- b) Pertsona juridikoa den Kontseilariari dagokionez:
 - (i) Kontseilariak eta pertsona juridikoa den Kontseilariaren ahalmen orokorrak dituzten ahaldunak.

(ii) Pertsona juridikoa den Kontseilariari dagokionez Kontseilarekin lotutako pertsonatzat hartzen diren pertsonak, artikuluko honetako a) letran aurreikusitakoarekin bat etorritik.

VIII. KAPITULUA KONTSEILARIAREN ESKUBIDEAK ETA ESKUMENAK

28. Artikulua. Informazio eta ikuskapen eskumenak

Kontseilariak eskumen zabalak ditu Sozietatearen edozein alderdiren inguruko informazioa eskuratzeko, beraren liburuak, erregistroak, dokumentuak eta bere operazioen gainerako aurrekariak aztertzeko eta beraren instalazioak ikuskatzeko.

Informazio eskubidea mendeko eta partaidetzazko Sozietateetara ere hedatzen da.

Sozietatearen kudeaketa arrunta ez oztopatzeko, informazio eskumeneren erabilera Kontseiluko Presidentearen, Presidenteordearen edo -hala dagokionean- Idazkariaren bitartez bideratuko da. Kontseilariaren eskariei erantzungo zaie, eskatutako informazioa zuzenean emanez, mintzakide egokiak eskainiz erakundearen maila egokian, edo egin nahi dituen azterketa eta ikuskapen eginbideak "in situ" gauzatzea ahalbidetzen duten neurriak hartuz.

29. Artikulua. Adituen laguntza

Bere eginkizunak betetzerakoan laguntza jasotzeko xedez, edozein Kontseilarik lege-, kontabilitate-, finantza-aholkulariak edo bestelako adituak kontratatu ahal izango ditu eta berarekin bileretara joateko eskatu.

Enkarguak zerikusia izan behar du kargua betetzean sortu zaizkion eta nolabaiteko garrantzia eta konplexutasuna dituzten arazoekin.

Norbait kontratatuzko erabakia Kontseiluaren Presidenteari jakinarazi behar zaio, eta horri betoa jar daskioke, baldin eta egiaztatzen bada:

- a. Kontratazioa ez dela beharrezkoa agindutako eginkizunak zentzuzko eran gauzatzeko.
- b. Beraren kostua ez dela arrazoizkoa, arazoaren garrantzia ikusita.
- c. Eskatutako laguntza teknikoa modu egokian eman dezaketela Sozietatearen aditu eta teknikariek.

30. Artikulua. Kontseilariaren ordainsaria

Kontseilariak ez dute inolako ordainsaririk jasoko beren kargua betetzeagatik.

Sozietateak erantzukizun zibileko aseguru bat kontratatuko du bere Kontseilariarentzat.

IX. KAPITULUA GOBERNU KORPORATIBOA

31. Artikulua. Gobernu korporatiboari buruzko txostena

Administrazio Kontseiluak gobernu korporatiboari buruzko informazioa argitaratu beharko du, dela jarduerari buruz urtero egiten den txosnengan, dela Sozietatearen webgunean.

Txosten horrek zehaztasunez azaldu beharko du Sozietatearen gobernu sistemaren egitura, eta baita praxian duen funtzionamendua ere. Edonola ere, gobernu korporatiboaren gutxieneko edukia hauxe izango da:

1. Sozietatearen jabetzaren egitura.
2. Sozietatearen administrazioaren egitura, alderdi hauei buruzko informazioarekin: Administrazio Kontseiluaren osaketa, antolaketa eta funtzionamendu arauak, eta beraren kideen ordainsariak.
3. Arriskua kontrolatzeko sistemak.
4. Batzar Orokorraren funtzionamendua, egiten dituen bileren garapenari buruzko informazioarekin.
5. Gobernu korporatiborako gomendioen jarraipen maila edo, hala dagokionean, gomendio horiek bete ez izanaren azalpena.

Gobernu korporatiboari buruzko txostena 2010eko ekitaldi ekonomikoaren inguruan egingo da aurreneko aldiz.

I. ERANSKINA

KONPROMISO ADIERAZPENA

xxxxxxxxx jaunak/andreak, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa, Ihobe, S.A.ren Kontseilaria den aldetik, betebehar hauek betetzeko konpromisoa hartzen du:

- Sozietatearen kudeaketa orientatzea eta kontrolatzea, balioaren sorrera maximizatzeko xedez.
- Behar den bezala jokatzeko interes sozialak lortzeko, Sozietateari zor dion leialtasun betebeharra benetan betez. Alde horretatik, betebehar zehatz hauek izango ditu:
 - a) Sozietatearen administrazioak planteatzen dituen gaien jarraipen erregularra egiteko beharrezkoak diren denbora eta ahaleginak dedikatzea, horretarako

behar den informazioa eskuratuz.

- b) Kontseiluaren bileretara joatea konpromiso pertsonaltzat hartzea eta beraren eztabaidetan modu aktiboan parte hartzea, bere irizpideak eragin erreala izan dezan hartzen diren erabakietan.
 - c) Administrazio Kontseiluak agintzen dion eta bere dedikazio-konpromisoaren barnean modu arrazoizkoan sar daitekeen edozein zeregin espezifiko gauzatzea.
 - d) Sozietatearen kudeaketan antzeman dezakeen edozein irregulartasun ikertzea, eta erne egotea edozein arrisku-egoeraren aurrean.
 - e) Oro har, legeek eta Araudiek ezartzen dituzten betebeharrak betetzea, interes sozialarekin fidela izanik; ildo beretik, Legaren, Sozietatearen Estatutuen edo interes sozialaren kontrako erabakiei aurre egin beharko die, eta bere aurkako jarrera aktan jaso dadila eskatu beharko du, interes horren babeserako egokiagoa dela uste duenean.
- Sekretua gorde beharko du izaera konfidentzialeko informazioez, eta kargua betetzearen eraginez ezagutu dituen datu, txosten edo aurrekariaren erreserba gorde beharko du, datu, txosten edo aurrekari horiek hirugarren pertsonari jakinarazi gabe edo hedatu gabe, hori kaltegarria izan daitekeenean interes sozialarentzat.
 - Sozietatea garaiz informatzea beraren erabakietan eragina izaten dezaketen interes partikularrez.
 - Bere egoera profesionalaren aldaketa esanguratsuak Sozietateari jakinaraztea, baldin eta eragina badute Kontseilari izendatzera eraman zuen izaera edo kondizioan; jakinarazi beharko dizkio, halaber, interesen arteko gatazkak sor litzaketan aldaketak.
 - Gainera, inplikaturik badago erreklamazio judizial edo administratiboaren batean edo bestelako erreklamazioaren batean, horren berri eman beharko dio Sozietateari, baldin eta, beraren garrantziaren eraginez, horrek eragin larria izan badezake Sozietatearen ospean.
 - Kontseilariak bete behar duen leialtasun betebeharra betetz, interesen arteko gatazka egoerak saihestu beharko ditu, alegia, berarekin lotutako pertsonen eta Sozietatearen arteko interes-gatazkak, eta saihestezinak badira horren berri eman beharko dio Administrazio Kontseiluari. Hain zuzen ere:
 - Kontseilariak ez du esku hartuko berarekin zuzenean edo zeharkako zerikusia duten gaien buruzko eztabaidetan.
 - Kontseilariak ezin izango du egin zerbitzu profesional edo komertzialen prestaziorako transakzioak, ez zuzenean ez zeharka, salbu eta interesen arteko gatazka egoera aurretik jakinarazten badu eta Kontseiluak transakzioa onartzen badu.
 - Kontseilariak ezin aprobeatzea dezake bere onerako edo berarekin lotutako pertsonen onerako Sozietatearen negozio aukerarik, hau da, Kontseilari kargua betetzeari lotuta, edo Sozietatearen informazio-bideak erabiltzearen bidez, sortu edo azaleratu den inbertsio edo operazio komertzialen bat egiteko aukerarik.

